



## UDALAREN LIBURUTEGI SAREAREN ARAUDIA

### ATARIKOA

- 1 Vitoria-Gasteizko Udalaren Liburutegi Sarea arautu nahi da honen bitartez.
- 2 Helburu nagusia herritar guztiek irakurtzeko eta informatzeko aukera izan dezaten bermatzea da, eta dauzkagun baliabideen erabilera antolatzea al bait etekin handiena ateratzeko.

### ERABILTZEKO ESKUBIDEA

- 3 Udal liburutegiak bertako zerbitzuez baliatu nahi duen herritar ororentzat egongo dira zabalik, zerbitzuaren beharrak kontuan hartuz ezartzen den ordutegian. Liburutegiaren ondoan erakutsiko da ordutegi hori, leku ikusgarri batean eta udaleko web orrian: [www.vitoria-gasteiz.org/liburutegiak](http://www.vitoria-gasteiz.org/liburutegiak)

### LIBURUTEGI MOTAK ETA ADIN MUGAK

- 4 Udal sareko liburutegiak hiriko gizarte etxeetan daude kokatuta. Gizarte etxe horietako batuetan, bi liburutegi daude –familia liburutegia eta helduen liburutegia–, eta beste batzuetan, berriz liburutegi bakarra, integratua. Bereizketa horrek erabiltzeko mugak ezartzen ditu erabiltzaileen adinari dagokionez.

#### **Helduen liburutegia (eta helduen atala liburutegi integratuetan)**

- 4.1 Arau orokor moduan, zerbitzu hau 12 urtetik gorako pertsoneri zuzendua dago.
- 4.2 12 urtetik beherakoak ezin dira helduentzako liburutegian sartu, ez bada guraso edo tutoreei kasu puntualetan laguntzeko. Edonola ere, ezingo dituzte irakurketa eta kontsulta guneak erabili, familia liburutegian horrelako guneak dituztelako, haien adinari egokituak.

#### **Haur eta gazte liburutegia (eta haur eta gazte atala liburutegi integratuetan)**

- 4.3 Arau orokor moduan, zerbitzu hau 14 urte bitarteko haurrei zuzendua dago.
- 4.4 8 urtetik beherako haurrak beti heldu batek lagunduta egongo dira liburutegian. Adin horretatik aurrera, bakarrik ere egon daitezke, baina erantzukizuna guraso edo tutoreena izango da beti.
- 4.5 14 urtetik gorako pertsonak haur eta gazte liburutegian sartu ahalko dira mailegu zerbitzua erabiltzeko, baina ezingo dituzte irakurketa guneak erabili ez bada aipatutako adin horretatik beherakoei laguntzeko, beti ere aurreko puntuan zehazten den mugarekin: 8 urtetik beherakoekin bakarrik helduak egon ahalko dira.

## LIBURUTEGIEN SAREKO BAZKIDEA IZATEA

- 5 Euskadiko Liburutegi Publikoaren Sareko bazkidea izateko ezinbestekoa izango da txartel hauetariko bat edukitzea: Herritarren Udal Txartela, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko txartela, Ignacio Aldecoa Kultura Etxeko txartela, IZENPE edo ONA txartelak. Horretaz gain, edozein liburutegitan aurki daitekeen Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean izena emateko orria bete. 14 urtetik beherakoek, guraso edo tutoreek sinatutako baimena eta horietako baten nortasun-agiria ekarri beharko dute.

Bazkidea izateak ekarriko du mailegu zerbitzua erabili ahal izatea bai edozein udaleko liburutegitan bai Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan. eLiburutegia mailegu digitala ere erabili ahal da.

Katalogoa liburutegietan nahiz Interneten bidez kontsultatzerik egongo da hurrengo helbide hauetan:

- [www.vitoria-gasteiz.org/liburutegiak](http://www.vitoria-gasteiz.org/liburutegiak)
  - [www.euskadi.eus/katalogobateratua](http://www.euskadi.eus/katalogobateratua) (euskarri fisikoko dokumentuak)
  - [www.eliburutegia.euskadi.eus](http://www.eliburutegia.euskadi.eus) (dokumentu digitalak)
  - [www.liburubila.euskadi.eus](http://www.liburubila.euskadi.eus) (metabilatzaile orokorra)
- 6 Txartela pertsonala eta besterenezina izango da. Ezinbestekoa izango da mailegu zerbitzuaz baliatzeko.
- 7 Ematen diren datu pertsonalak tratatzean Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoari jarraituko zaio. Bere datu pertsonaletan funtsezko aldatetarik bada, erabiltzaile txartelaren titularrak arduratu beharko du horiek eguneratzeaz.
- 8 Erabiltzaile txartela galduz gero, liburuzainei jakinarazi beharko zaie berehala. Bestetik, titularrak izango du galera jakinarazi arteko denboran egiten diren eragiketen erantzukizuna.
- 9 Liburutegien Sareko bazkide izateak berekin dakar ezarritako arauak eta zigorrak onartzea.

## MAILEGU ZERBITZUA

### 10 Maileguan har daitekeen materiala

- 10.1 Maileguan hartu ahal da liburutegiak horrela sailkatzen duen lan edo material oro. Lan horiek. «ERABILGARRIA» etiketarekin agertuko dira katalogoan.
- 10.2 Oro har, hurrengoak ezin izango dira maileguan hartu:
- Kontsulta lanak (hiztegiak, atlasak, entziklopediak, etab.).
  - Aldizkarien azken aleak; aurreko ale guztiak, berriz, bai.
  - Katalogoak horrela sailkatuta dituen lanak; adierazpena emango dute.

### 11 Mailegu zerbitzuaren erabiltzaileak

- 11.1 Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko bazkide oro baliatu ahal da mailegu zerbitzuaz.
- 11.2 Besteak beste, erakunde, entitate juridiko edo Udaleko beste sail batzuentzako mailegu kolektiborako aukera ere izango da. Liburutegiak zehaztuko ditu, kasuan kasu, mailegatzeko baldintzak, interes orokorra babeste aldera.

## 12 Mailegurako baldintza orokorrak

- 12.1 Mailegu arrunta banakoentzat izango da.
- 12.2 Bazkide bakoitzak gehienez hauek har ditzake:
  - 6 liburu (gehienez ere bi nobedade)
  - 3 aldizkari (hilekoak izan ezik)
  - 3 CD
  - 3 DVD
  - 3 CD-ROM
- 12.3 Maileguaren iraupena:
  - Liburuak, aldizkariak eta telesailak: 21 egun
  - Ikus-entzunezko materiala (telesailak izan ezik): 7 egun
- 12.4 Dokumentuak itzuli ahal izango dira bai liburutegian bai liburutegiko buzoian.
- 12.5 Maileguak edo erreserbak egin diren liburutegira itzuli beharko dira dokumentuak.

## 13 Mailegua berritzea

- 13.1 Mailegua berritzerik izango da, baldin eta maileguaren epemuga gainditu ez bada. Behin berritu ahalko da mailegua.
- 13.2 Mailegua ezin izango da berritu beste erabiltzaile batek dokumentua erreserbatu badu.
- 13.3 Edozein dokumenturen mailegua berritzeko bazkide txartela eta dokumentua aurkeztu beharko dira, Liburutegi Sareko edozein liburutegitan.
- 13.4 Maileguak interneten bidez ere berritu ahalko dira, web katalogoaren bidez (horretarako, lehen erabilera baino lehen pasahitza eskuratu beharko da aurretik liburutegian).

## 14 Erreserbak eta mailegu eskaerak

- 14.1 Baldin eta beste erabiltzaile batek dokumentu bat maileguan hartuta badu, erreserbatzerik izango da, bai liburuzainaren bitartez, bai web katalogoaren bidez (horretarako, lehen erabilera baino lehen pasahitza eskuratu beharko da aurretik liburutegian).
- 14.2 Euskadiko Irakurketa Sareko liburutegien arteko mailegu zerbitzua erabilia, monografiak eskatu ahalko dira zerbitzu horretan parte hartzen duen edozein liburutegitatik ekartzeko, baldin eta dokumentuak ERABILGARRIAK badira. DVD eta CD maileguak, berriz, bakarrik Vitoria-Gasteizko Udalaren Liburutegi Sareko liburutegien artean mailegatuko dira. Horrenbestez, baliteke dokumentu bat apalean egotea baina ezinezkoa liburutegian bertan mailegatzea, web orriaren bidez erreserbatu delako.
- 14.3 Bazkide bakoitzak bi erreserba eta bi mailegu eskatu ahal izango ditu gehienez.
- 14.4 Erreserbatutako dokumentua eskuragarri dagoen unean liburutegiak horren berri emango dio erabiltzaileari, bila joan dadin. Jakinarazi ondoren gehienez hiru egunez gordeko dira erreserbak. Epe hori igarotakoan, hurrengo erreserbari erantzungo zaio edo liburuak apaletara itzuliko dira.

- 14.5 Pertsona batek dokumentu bat erreserbatu eta gero horren beharrik ez badu liburuzainei jakinarazi beharko die.
- 14.6 Ez da ez erreserbarik ez mailegu berritzerik egingo telefonoz edo posta elektronikoz, ez eta katalogoari buruzko kontsultarik ere.

## 15 Zigorrak

- 15.1 Dokumentuak epez kanpo itzultzen badira, zerbitzua erabiltzeko eskubidea galduko da, berandutze egun bakoitzeko egun batez, hain zuzen.
- 15.2 Maileguan hartutako materiala itzultzeko epeak behin eta berriro betetzen ez badira, mailegu zerbitzua erabiltzeko eskubidea denbora batez edo behin betiko galtzea ekar lezake. Zerbitzuko arduradunak ebatziko du hori, udal sareko liburutegi guztietarako, eragindakoari aldez aurretik jakinarazita.
- 15.3 Zerbitzuaren erabiltzaileek materiala onik zaindu beharra dute. Dokumentua hondatuta dagoela antzemanaz gero liburutegiko arduradunari ohartaraziko diote. Erabiltzaileak dokumentua hondatu edo galtzen badu, berria itzuli beharko du. Lana agortuta balego, antzeko batez ordezkatu beharko luke, liburutegiarekin ados jarrita. Baldintza hori bete ezean, pertsona hori ezingo da mailegu zerbitzuaz baliatu.

## 16 Dokumentuak erosteko iradokizunak

Liburutegiko bilduman ez dauden dokumentuak erosteko eskatu ahalko da. Iradokizunak kontuan hartuko dira ala ez, liburutegiaren erosketa politika eta eskaeraren interes oro- korra kontuak izanik. Iradokizunak liburutegian bertan edo web katalogoaren bidez egin ahalko dira.

## ARETOAN KONTSULTATU ETA IRAKURTZEKO ZERBITZUA

- 17 Edonor sar daiteke irakurketa eta kontsulta aretoan; zerbitzua doakoa da.
- 18 Irakurketa lekuak ezin dira erreserbatu, ez eta hogeita hamar minutu baino luzaroago erabili gabe utzi. Hala gertatuz gero beste pertsona batek hartu ahalko du. Epe hori igarotakoan, liburuzainek inor ez dagoen lekuan utzitako materiala bertatik kentzeko ahalmena izango dute.
- 19 Liburutegiko funtsak kontsultatzera doazen pertsonak izango dute bertan egoteko lehentasuna, beren materialak ikastea doazenen aurretik.
- 20 Funtsak eta aldizkako argitalpenak irakurri eta kontsultatzeko lekuak horretarako baino ez dira erabiliko.
- 21 Norberak behar dituen materialak apaletatik hartu ahalko ditu. Kontsultatu ondoren horretarako zehaztutako lekuetan utziko ditu, eta liburuzainak arduratuko dira berriro apaletan jartzeaz.

## LIBURUTEGIKO ORDENAGAILUAK ERABILTZEKO ZERBITZUA

- 22 Liburutegiko ordenagailu zerbitzua erabiltzeko beharrezkoa da:
  - Herritarren Udal Txartela (HUT) edukitzea.
  - Gasteizko Udal Liburutegien Sareko bazkide izatea.
  - 8 urtetik beherakoen kasuan, heldu baten laguntza behar dute. 8 eta 15 urte bitartean (biak barne) guraso edo tutorearen laguntza edo baimena behar dute.

- 12 urte arteko adingabeek haur eta gazte liburategietan dauden ordenagailuak bakarrik erabili ahal izango dituzte.
  - 8 eta 15 urte bitarteko adingabeei (biak barne) baimena emateko, aitak, amak edo tutoreak Herritarrei Laguntzeko Bulegora (HLB) joan beharko du, eta adierazi liburategietan ordenagailu-zerbitzua erabiltzeko baimena eman nahi duela.
  - Baimena Herritarren Udal Txartelean (HUT) jasoko da, eta edozein gizarte-etxetako liburategietan gerora erabiltzeko balioko du.
- 23** Zerbitzua lehen aldiz erabili baino lehen, sarbide-kodea eskatu beharko da gizarte etxeko Argibide eta Kontrol Zerbitzuan.

### IRAKURZALETASUNA SUSTATZEA

- 24** Ipuin kontalariak, idazleekiko topaketak, ikuskizunak, erakusketak, solasaldiak, lantegiak, irakurketa gidak eta abar antolatzen dira helburu nagusi hauekin: irakurle berriak erakartzea eta haiengan interesa piztea; ezagutzak zabaltzen laguntzea eta irakurtzeko sen kritikoa sustatzea; liburutegiko baliabideak ezagutaraztea.
- 25** Liburutegiak aldeztu aurretik jakinaraziko du egitaraua. Hainbat kasutan jardueren antolaketa ekarriko du liburutegia ixtea.

### INSTALAZIOAK ERABILTZEA

- 26** Zerbitzuaz baliatzen diren pertsonak dokumentuak, instalazioak eta liburutegiko gainerako tresnak zuzen erabili beharko dituzte. Behar den bezala ez erabiltzeagatik hondatzen badira horren erantzule izango dira eta galtzen edo hondatzen den materialaren ordez berria itzuli beharko dute.
- 27** Besteei zor diegun begiruneagatik isiltasuna gorde behar da. Sakelako telefonoen, ordenagailu eramangarrien eta beste dispositibo elektronikoen soinua deskonektatu behar dira.
- 28** Ez dago instalazioetan jaterik ez eta edaterik ere.
- 29** Arau hauek betetzen ez badira gizarte etxeen eta kirol instalazioen araudian aurreikusitako zigorrak ezar daitezke. Gertaeraren larritasunaren arabera, ohartarazpenetik hasi eta zentroan sartzea debekatzea edo isunak jartzera irits daitezke zigorrak.